

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KRIPANGO UDALA

**Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren mende dagoen plazaren enplegu publikoaren eskaintza onestea, bat etorritik Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin**

Plantilla eta udal aurrekontua behin betiko onetsi dira, langileen erregulazioa antolatzeko tresnaren bidez, eta bata eta bestea ALHAOn argitaratu dira.

Ikusirik ezen, aipaturiko plantillan eta langile erregulaziorako tresnan, lanpostuen zerrendan, hutsik eta aurrekontu bidez zuzkiturik ageri dela plaza bat, zeina ekitaldi honetan betetzea beharrezkotzat jotzen baita udal zerbitzuen funtzionamendu egokirako.

2022ko apirilaren 29an, Idazkaritzak jakinarazi du ezen, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria oinarri hartuta, udalak, salbuespenezko izaeraz eta Enplegatu Publikoen Estatutuaren testu bategineko 61. artikuluko 6. eta 7. apartatuetan ezarritakoaren arabera, plaza horretarako deia egin dezakeela 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baititu eta egiturazkoa baita, eta orobat 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etenik gabe aldi baterako okupatuta egon dela.

Udalaren kontu-hartzaitzak jakinarazten du ezen, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, eta zerbitzu tekniko eta juridikoek adierazitakoaren arabera, bidezkoa dela plaza horretarako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdia egitea, baldintzak betetzen baitira. Partida horretan, indarrean dagoen udal aurrekontua esleituta dago, eta ez da beharrezkoa izango hurrengo administrazio jarduketara egitea.

Negoiazio mahaian negoziatu da, 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, espedientean jasota dagoen bezala.

Akordioa badago administrazioak adierazi den deialdirako beharrezkoak diren administrazio jardunak egin ditzan.

Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarrian eta Enplegatu Publikoen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluan (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 91. artikuluaekin eta toki araubidearen kontuan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onetsi zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 128. artikuluaekin loturik) ezarritakoa oinarri hartuz, bidezkoa da iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren barnean dauden lanpostuen enplegu eskaintza publikoa onestea eta argitaratzea, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarriaren arabera.

Horiek horrela, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak 21.1.g) artikuluan Alkatetzari ematen dizkion eskumenez baliatuz,

## EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi honen barnean dagoen plazaren enplegu publikoaren eskaintza onestea:

## LAN KONTRATUDUNA

HUTSIK	
Lanpostuaren izena	Zerbitzu askotarako langilea
Administrazio egoera	Hutsik
Lanbide kategoria	Menpekoak
Taldea	E
Maila	15
Titulazioa	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudunaren titulua
Hizkuntza eskakizuna	1, derrigortasun datarik gabe
Destinoa	Askotariko zerbitzuak

Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarriaren arabera.

Bigarrena. Administrazio zerbitzuei agintzea ebazpen honetan onetsitako enplegu publikoaren eskaintza ediktu bidez argitara dezatela EHAAn, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 24. artikulua. Enplegu publikoaren eskaintzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikokoan, baldin eta foru aldundienak edo toki erakundeak bada. Azken kasu honetan, eskaintzen laburpena ere argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoarekin. Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea erabakitzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri errekurtsoa berriaz ebazti arte edo isiltasunez ezetsi arte. Hori guztia bere eskubideen alde egokitzat jotzen duen beste edozein errekurtso jartzeko aukera alde batera utzi gabe.

Kripan, 2022ko apirilaren 29a

*Alkatea*

*JOSEBA FERNANDEZ CALLEJA*